

EUSKARA BATZORDEAK 2012ko AZAROAREN 21ean IZANDAKO BILKURARI DAGOKION AKTA.-

Batzarreratuak:

Esperanza Uriarte and (Euskara Zinegotzia)
Estiñe Astorkia and. (Euskara dinamizatzailea)
Jaione Iturbe and. (Udal Euskaltegia)
Igone Olabarria and. (Gernikako AEK)
EAJ-PNVko bozeramailea
Pernando Basterretxea jna. (Bust. Eusk. Bizi Elk.)
Luis Ortuzar jna. (Gernikako Institutua)
Begoña Diaz de la Torre and. (Barrutia ikastetxea)
Laura Etxabe and. (Seber Altube ikastola)
Maite Oruetxebarria and. (HITZA egunkaria)
Edurne Atxikallende and. (Busturialdeko Irrati Telebista)
Rosa Okariz and.

Idazkaria:

Bittor Zarrabeitia jna. (Euskara Teknikaria)

Hasiera ordua: 18:30

Amaiera ordua: 19:30

Ezin etorria zuritu dutenak:

Idoia Fernández and.

San Fidel ikastola.

1).- 2012ko ekainaren 20ko batzarrari dagokion akta onartzea, hala balegokio.

Aho batez onartu da.

2).- 2013-2017 eperako Gernika-Lumoko Plan Estrategikoa (EBPN) eratzearren, partaidetzarako proposamena.

Banatu den agiria oinarri, Batzordeko idazkariak azalpenak eman ditu lehenengo atalari buruzkoak, hau da, 2003-2008 eta 2009-2012 epeetako Plan Estrategikoen egitura eta euren arteko alderaketa orokorraz.



Jarraian, Esperanza Uriarte Euskara Zinegotizak azaldu du agiri horretako bigarren atalekoa, alegia, 2013-2017 eperako Plan Estrategiko eratzearen, partaidetzarako aurkeztu den proposamena.

Idoia Fernández andreak egindako ekarpenarekin hasi da; Euskara Batzordea bera foro nagusitzat eta gunetzat hartzea.

Ekarpen hori kontuan harturik eta ekainean aurkeztu zena aztergai, honako proposamena aurkeztu da, erdibidekoa delakoan: Euskara Batzordea foro bakartzat hartu, baina bere baitan lan-mahaiak sortu esparruak lantzeko, lan-mahai mistoekin ere jokatzuz. Hori guztia, hausnarketa eta proposamen aldetik aberasgarria izan daitekeelakoan.

Ekaineko proposamena oinarri bildutakoei ekarpenik egin nahi duten galdetu ostean, banatutako proposamenarekin lotuta doan kronograma azaltzeari ekin dio.

Pernando Basterretxea jaunak ontzat eman du aurkeztutako proposamena, ekainekoa baino argiago ikusten duelako eta planteatutako metodologia arinagoa dela.

Batzordeko idazkariak aipatu du lan-mahai kopurua partaide kopuruaren araberakoa izango dela; harik eta lan-mahai gehiago eratu ahal izan, aztertu beharreko 10 esparruak azkarrago landuko dira.

Estiñe Astorkia andreak adierazi du arlokako lan-mahaiez gain, lan-mahai mistoak ere antolatzeko asmoa dagoela, ikuspuntu zabalagoa bitarteko hausnarketa aberastu egin daitekeela eta.

Erabakia:

Aurkeztu den proposamena (ikus 1. eranskina) onartu egin da eta, kronogramari eutsiz, hurrengo pausua emateari eutsiko zaio: abenduaren 4an partaidetzarako gonbitea kaleratu eta abenduaren 12an Euskara Batzorderako deialdia egin (lan-mahaiak eratu).

2).- Gai batzuen berri ematea.



Etorri berri helduei zuzendutako inkesta.- Euskara Zinegotziak azaldu du inkesta horren nondik norakoa: Talde eragile bat gauzatu zen Euskara Batzordearen aginduz (Eusk. Zinegotzia, Udal Euskaltegia, AEK Euskaltegia, Inmigrazio teknikaria, Hizkuntza Normalizaziorako teknikaria 1) eta inkesta borobildu ostean, 1.400 etorri berrik jaso du bere etxean. Horietatik, 78k besterik ez dute erantzun, beraz, tentuz hartu behar dira emaitzak, oso lagin txikia da eta.

Batzordeko idazkariak, kontuan harturik lagin txikia dela, emaitzen berri eman du (ikus 2. eranskina).

Horrekin lotuta, Euskara zinegotziak adierazi du etorri berrientzat harrera protokolo bat egokitzen ari direla eragile guztien artean eta, horretan, idiosinkrasia eta hizkuntzarena ere kontuan hartzeko konpromisoa dagoela.

ZUK ZERGATIK EZ” kanpaina.- Euskara Zinegotziak azalpenak eman ditu oraintsu martxan jarritako kanpainaz eta eskertu egin du toki hedabideek egin dioten jarraipena eta zabalkundea.

Jaione Iturbe andreak aipatu duenez, kanpainaren helburua txalotzekoa izanda ere, Udal euskaltegian izan dutela herritarren kexa batzuen berri, udaletxera sartu eta erdaraz ari direlako lanean.

Euskara Zinegotziak azaldu du jabe dela horretaz, baina herritarren eraginez ere langileek hizkuntza ohiturak aldatzeko bidea jorratu nahi dela. Oraindik arin da kanpainaren eraginkortasunez adierazlerik emateko eta aurrerago egingo dira neurketak horretarako.

Euskararen egunaren inguruko egitaraua.- Euskara Zinegotziak ekitaldien berri eman du. Gainera, batzordekideei bidali zaie egitarauaren kartela, parte hartzeko gonbitea luzatuz.

Abenduaren 1eko manifestazioa (Kontseilua).- Euskara Zinegotziak eman du horren berri eta, adierazi du Udalak deialdi horrekin bat egin duela. Hori aitzakia, OHARRA kaleratuko da: *Euskaraz bizi nahi dut* kanpainarekiko atxikimendua erakusteko eskatuko dio herriari, azaroaren



26tik abenduaren 3ra bitarte leloa idatzirik duten banderolak eskegita balkoietan. Banderolak salgai izango direla ere adierazi du, 3 €an, Kultur etxean.

5).- Erreguak eta galderak.

Ez da galderarik azaldu.

Beste aztergairik ez dagoenez, amaitutzat jo da batzarra.

Izp.: Euskara Zinegotzia
Esperanza Uriarte

Izp.: Euskara Teknikaria (HNT1)
Bittor Zarrabeitia

